

## BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, HORNIDURARAKO

### PLAZAOLAKO JOLAS PARKEA ESTALTZEA

#### 0. AURREKARIAK

Jolas parke hau oso erabilia da herriko haurren artean urtean zehar. Eguraldi txarra dagoenean ordea, mugatua da bere erabilera. Halaber, udan, gero eta egun beroagoak ditugunez, estalkiak itzala ere eskainiko dio jolasguneari.

Gune hau, Legazpiko elizaren atzealdean kokatuta dago, Plazaola kalea 8, 9 eta 10 zenbakidun etxeen parean. Bertan hainbat jolas daude, baina horiek ere berritzea da Udalaren asmoa. Dagoen zorua kautxuzko lauzez osatuta dago.

Jolasguneak 330 m<sup>2</sup> inguru ditu. Hura inguratuz, harrizko maila bat dauka eta Plazaola kale alderantz hainbat zuhaitzek babesten dute parkea. Euskal Herria plaza alderantz tamaina handiko farola bat dago kokatuta. Lurrazpitik hainbat sare pasatzen dira eremu honetan, planoan jasota daude.

Kontuan izan behar da, herriko jaietan batez ere, jolas parkea eta elizaren arteko tartea hainbat ekitalditarako erabiltzen dela, barrakak, nahiz txosna jartzeko, elementu hauen kokapen planoak atxikitzen da.

#### 1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea honako hau izango da: "PLAZAOLAKO JOLAS PARKEA ESTALTZEKO LONAZKO ESTALKI BATEN DISEINUA, HORNIDURA ETA INSTALAKUNTZA". Kontratuaren baitan, estalkiaren hornidura eta instalakuntza egiteko beharrezko obra esleituko dira, beraz kontratu mistoa izango da. Estalkiaren prezioa obrarenaren gainetik dagoela aurreikusten denez hornidura kontratu bezala esleitzea proposatzen da.

Lehiaketan parte hartuko duenak, estalkiaren diseinu osoa aurkeztu beharko du, hau da, planoak eta memoria deskriptiboa (egituraren azterketa ere jasoko duena).

Lanak burutzeko epea BI HILABETEKOA izango da.

Lehenengo 3 astetan esleipendunak indarrean dagoen arautegi guztia betetzen duela egiaztatuko duten agiriak aurkeztu beharko ditu, teknikari eskudunak sinatuta eta dagokion elkargoak ikus- onetsita, beharrezkoa bada.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## 2. BALDINTZA TEKNIKOAK

Estalkia, eguraldiaren gora-beherak jasango dituen olanaz osatua egongo da, egitura metalikoa eta beharrezkoa den zimenduak hormigoi armatukoak izango dira.

### Estalkiaren olana:

Olanak Hausturari eta Urraduraren aurkako behar adinako erresistentzia izango du. Honez gain:

- Suteen aurkako erresistentzia: M2 izango da gutxienez
- Zikinkerriaren aurkako tratamendua izango du
- Olanaren gutxienerako bermea: 5 urtekoa izango da.

Eskaintzako memorian azalduko dira hala beharrez:

- Zein materialetakoa den, gutxienerako pisua, hausturari erresistentzia bi noranzkotan eta Urradurari erresistentzia bi noranzkotan
- Olanak koloretako akabera izan dezake, proposamen teknikoan adieraziko da azken akabera nolakoa izango den 3D irudien bitartez.

### Egitura metalikoa:

- Zutabeak, habeak, arkuak, tripodeak eta xehetasun-osagarriak altzairuzkoak izango dira (ainguraketarako plakak, pernoak eta gainontzeko egituraren osagarriak)
  - Altzairuak, gutxienez, 275 N/mm<sup>2</sup>ko muga elastikoa izango du.
  - Herdoiltzea ekiditeko gutxienez beroan murgildutako galbanizatuko da.
  - Gutxienezko bermea 5 urtekoa izango da.
- Perimetroko kableak, terminalak eta torlojuak altzairu herdoilezinezkoa izango da gutxienez AISI 316 motatakoa.

### Zimentazioa:

- Kontutan izan beharko da lurrazpiko azpiegituren eragina. Jarraian atxikita dago planoak.
- Indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

### Igeltseritza lanak:

- Lanak egiteko lauzak edo beste elementuren bat kendu beharko balitz berauek berriz jartzea izango dira.

### Dokumentazio teknikoa:

Gutxienez honako dokumentuek osatuko dute:

- Planoak
- Memoria deskriptiboa
- Egituraren azterketa eta kalkulua, tekniko eskudunak sinatuta eta dagokion elkargoak ikusonetsia.
- Aurrekontu xehatua
- Segurtasun eta osasun ikerketa, baldin badagokio
- Kalitate kontrolerako programa
- Hondakinen kudeaketa ikerketa



**LEGAZPIKO  
UDALA**

Instalakuntzarako dauden jolasak edo beste edozein elementu kendu beharko balitz, estalkia ezarriko duen enpresak berak desmontatu, gorde eta berriro muntatu beharko ditu.

Zimenduak egiteko gaur egun dagoen zoladuraren edo akabatuen zati bat kendu beharko da. Kentzen den zoladura eta akabatu guztia berrezarri beharko da (kortexoa, lurreko lauzak, harmailako harlauzak...) eta hasierako egoerara egokitu beharko da.

Jolasei dagokienez, arauz bete behar dituzten segurtasun neurriak errespetatuko ditu egiturak. Beharrezkoa balitz, material bigunarekin estaliko dira.

Egituraren zimenduek ezingo dute azpian doazen instalakuntzen gainean egon. Horretarako dokumentazio grafikoa osatzen duten planoetan jasoko dira ezagutzen diren sareak.

Ahal dela, parkearen barruan ez da zutaberik ezarriko.

Jolas eremuaren gainean gutxienez 2,80ko altuera librea errespetatuko da.

**Nahi izanez gero estalkipean argiteria jartzea proposatu daiteke, estalkiaren diseinuaren eta inguruko argiterian oinarrituta.**

### **3.- PREZIO KONTRAESANKORRAK ETA ADMINISTRAZIO ESKUORDETUAREN EDO ZEHARKAKOAREN BIDEZ EGINDAKO OBRAK**

#### 3.1.- PREZIO KONTRAESANKORRAK

Prezio kontraesankorrak sortuko dira, bakar-bakarrik, jabetzak erabakitzen badu, unitateak gehitzea edo aurreikusitako unitateren batean kalitate-aldaketak sartzea; halaber, prezio kontraesankorrak sortuko dira ezusteko egoeraren bati erantzun behar bazaio.

Kontratista aldaketak egitera behartuta dago.

Akordiorik ez dagoenean, prezioa modu kontraesankorrean erabakiko da Udala eta Kontratataren artean, lanak egiten hasi aurretik. Oraindik ere desadostasunak jarraitzen badu, lehenik eta behin dokumentazio teknikoaren prezioen taulan kontzepturik antzekoena hartuko da, eta bigarren aukera modura, herrian gehien erabiltzen den prezio-bankura joko da (kasu honetan Gipuzkoako Urakek erabiltzen duen prezio bankua da). Erreferentziako prezioen oinarrian partida egokia egonez gero, obraren prezio-beheraldi orokorra prezioen oinarriaren partidatan aplikatuko da.

Egon daitezkeen prezio kontraesankorrak kontratuaren datako prezio unitarioen arabera izango dira beti.

#### 3.2.- ADMINISTRAZIO ESKUORDETUAREN EDO ZEHARKAKOAREN BIDEZ EGINDAKO OBRAK

Honakoa izango da "Administrazio eskuordetuaren edo zeharkakoaren bidez egindako obra": Jabetza eta Eraikitzaile bat ados jartzen direnean, azken horrek Jabetzaren kontura eta haren ordezkari gisa beharrezko diren eta adosten diren gestioak eta lanak egingo ditu. Administrazio eskuordetuaren



**LEGAZPIKO  
UDALA**

bidez egindako obren barruan ordaintzen dira justifikatzeko dauden multzoko partidak.

Beraz, honako hauek dira "Administrazio eskuordetuaren edo zeharkakoaren bidez egindako obren" ezaugarri bereziak:

Jabetzari dagokionez, berak ordainduko ditu --zuzenean edo Eraikitzailearen bitartez-- adostutako lanak egiteak atxikita dituen gastu guztiak, eta ahalmena izango du, baita, ondorengo ekintzak --zuzenean edo, bestela, zuzendariaren bitartez-- agintzeko: lanen ordena eta martxa, lanean erabiliko diren materialen eta tresnen aukeraketa eta, azken finean, adostutako lanak arautzeko beharrezko iruditzen zaizkion elementu guztiak aukeratzea.

Eraikitzaileari dagokionez, berriz, bere eginkizuna izango da lanen kudeaketa praktikoa egitea, horretarako, eraikuntzan dituen ezagutzak eta beharrezko diren bitarteko osagarriak erabiliz eta, azken finean, bere zereginarekin bat etorrira, lanak egiteko beharrezko den guztia emanaz; horren truke, Eraikitzaileak egindako eta ordaindutako gastu osoaren gainean portzentaje bat (aurretik zehaztutakoa) emango dio Jabetzak. Justifikatzeko dauden multzoko partidak, administrazio eskuordetuaren edo zeharkakoaren bidez egindako obra moduan ordaintzen dira.

Administrazio eskuordetuaren edo zeharkakoaren bidez burutuko diren lanen likidazioa egiteko, obran indarrean dauden "Izaera ekonomikoko baldintza partikularretan" horretarako berariaz jartzen diren arauak jarraituko dira; arau horiek egon ezean, Eraikitzaileak administrazio-kontuak aurkeztuko dizkio Jabetzari, kontzeptu guztiak baloratuta, eta, horrekin batera, ondorengo dokumentuak, jarraian adierazitako hurrenkeran. Dokumentu horiek guztiek Udalaren oniritzia izango dute:

- a) Lanak egiteko erositako materialen faktura originalak, eta material horiek obran utzi edo erabili direla behar bezala ziurtatzen duen dokumentua.
- b) Ordaindutako jorنالen nominak, indarrean dagoen legerian jarritakoarekin bat datozenak eta lanbide bakoitzeko langileek zenbat lanordu egin dituzten eta beren kategoria zein den zehaztuta. Nomina horiekin batera, nominan adierazten den denboran zenbat arduradun, langileburu, taldeko zuzendari, lanbide bakoitzeko ofizial eta laguntzaile, peoi espezializatu eta solte, zerrenda-egile, guarda, etab., egon den lanean adieraziko da.
- c) Obrara materialak eramateko edo handik hondakinak kentzeko erabilitako garraioaren faktura originalak.
- d) Obra egiteko ordaindu behar izaten diren lizentzia, zerga edo gainerako kargen ordainagiriak, baldin eta Eraikitzaileak ordaindu edo kudeatu baditu, jabetzari baitagokio horiek guztiak ordaintzea.

Eraikitzaileak parte hartu badu obrei atxikitako gastu guztien kudeaketan edo ordainketan eta hitzarmen berezirik ez badago, obraren berezko gastuen gehiketari ehuneko 19a aplikatuko zaio (% 19); portzentaje horretan sartuta egongo dira istripuak prebenitzeko bitarteko osagarriak eta segurtasunekoak, egindako administrazio-lanagatik Eraikitzaileari sortzen zaizkion Gastu Orokorrak eta bere Etekin Industrialak.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

#### **4. BITARTEKO LAGUNGARRIAK, ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

Segurtasun eta osasun gaietan indarrean dagoen legeriaren arabera, eta urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretua (eraikuntza lanetan bete beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituen) oinarri hartuko dira eta kontratista esleipendunaren kontura izango dira gai honekin lotutako gastu guztiak.

Hori horrela, kontratua gauzatzen hasi baino lehen, kontratista esleipendunak Segurtasun eta Osasun Plan bat egin beharko du, hala badagokio, proiektuan jasotako Segurtasun eta Osasun Azterketan oinarrituta. Plan horretan Azterketan jasotako aurreikuspenak analizatu, aztertu, garatu eta osatuko dira, baina egin beharreko eraikuntza obrei egokituta eta, betiere, bere gauzatze-sistemaren arabera. Segurtasun eta Osasun Plana ez badagokio, arrisku espezifikoaren azterketa egin beharko du.

Esleipenduna behartuta dago obrak, kontratuan hitzartutako epean, ongi egin ahal izateko behar dituen makina eta bitarteko lagungarriak jartzera.

Era berean, behar diren neurri guztiak hartuko ditu langileen, oinezkoen eta inguruko jabetzen segurtasuna zaintzeko.

Edozein obra-unitate ongi egin eta bukatzeko beharrezkoak diren lanak, bitarteko lagungarriak eta materialak, bai eta laneko segurtasun eta osasuneko unitate edo elementuak ere, obraren prezioan sartuta daudela ulertuko da, nahiz eta prezioen deskonposizio edo deskribapenean horiek guztiak espezifikatu gabe egon. Beraz, horien kostua ez da kontuan hartuko Segurtasun eta Osasuneko Planaren aurrekontua egiterakoan.

Bestalde, aurrekontu orokorrean ez da sartu gabeko aparteko partidarik onartuko, ez obrako materialaren sarbidea egokitzeko, ez garraiorako ezta zamalanak egiteko ere, uste delako prezio horiek sartuta daudela obra-unitateetako prezio unitarioetan.

Era berean, kontratatutako enpresak bere kontura jarriko ditu honakoak adierazteko beharrezko seinaleak: obrako sarbidea; lana egingo den gunetako trafikoaren edo oinezkoen joan-etorria; lanak egingo diren tokian bertan, toki horren mugetan nahiz inguruetan arriskutsuak izan daitezkeen gunek. Horrez gain, egingo den obra kontuan izanda, pertsona eta ondasunentzat beharrezko diren segurtasun-neurri guztiak ere hartu beharko ditu.

#### **5. LANEAN JARDUNGO DUTEN TEKNIKARIA ETA PERTSONALA**

Zuinkatze-akta sinatu aurretik, kontratistak idatziz jakinaraziko dio Administrazioari zuinketaren eta obraren eta aurreikusitako proben ardura izango duen pertsonaren izena. Pertsona hori "**Obra-ordezkarria**" izango da.

Pertsona horrek behar adina esperientzia profesionala izango du. Horrez gain, ezingo da ordezkatu Udalak horren berri izan gabe eta oniritzia eman gabe.

Kontrataren ordezkariak eta Udalak euren arteko harremanen xehetasunak adostuko dituzte, bion arteko idatzizko komunikaziorako ereduak ezarriz eta obrak eta probak kontrolatzeko egingo



**LEGAZPIKO  
UDALA**

dituzten bileren maiztasuna eta maila zehaztuz.

## **6. OBRARAKO MAKINERIA**

Lan Programan aurreikusitako aurrerapenarekin, Kontratatistak obra egiteko lehiaketan eskaini duen makineria eta langile-taldea jarriko du obran.

Ezingo da obra-unitate baten hasiera agindu, lan horiek egiteko egokiak diren makinak eta langileak daudela ziurtatu arte, beti ere Kontratatistak lehiaketara aurkezteko zehaztu duenaren arabera. Kontratatistak ezingo du unitate berri bateko lanak hasi aurretiazko baldintza horiek bete gabe.

Funtzionamendurako beharrezkoak diren ekipo eta instalazio lagungarrien alderdi guztiak egokiak izango dira (baita haien potentzia eta ahalmena ezarritako epean egin behar den obraren bolumenera egokitutakoak). Ekipo eta instalazio lagungarri horiek ezingo dira erabili Udalaren onespena jaso gabe.

Onartutako instalazio eta makineria-ekipoak obrari atxikita geratuko zaizkio haiek erabiliko diren unitateak egin bitartean eta lanerako baldintza egokietan mantenduko dira une oro, beharrezkoak izango diren konponketak eta ordezkatzek eginez.

## **7. AZPIKONTRATATZAILEAK ETA HORNITZAILEAK**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 227. artikuluan xedatzen denaren arabera, eta hor exijitutako betebeharrak betetzen badira, esleipendunak hirugarrengoekin hitzartu ahal izango du kontratuaren zati batzuen burutzapena.

Esleipendunak egingo dituen azpikontratuen zerrenda aurkeztuko du, eta bertan adieraziko du azpikontratatzaile bakoitzak kontratuaren zein zati egingo duen.

Enpresa azpikontratatzaileak aldatu nahi badira, aurretik Udalaren berariazko baimena lortu behar da.

## **8. LUR EREMUAK OKUPATZEA OBRAK GAUZATZEKO**

Administrazioak emango ditu obrak kokatzeko behin betiko okupatu beharko diren lur eremuak.

Obrak egin bitartean behin-behineko okupatu beharko den guztia (instalazioetarako, materialak gordetzeko, zaborteziak, bideak, lur-hartzeak, maileguak,...) erabiltzeagatik ordaindu beharko diren kalte-ordainak Kontratatistaren kontura joango da eta berak kudeatuko ditu haien okupazioa Administrazioarenak lur eremuak ez direnean.

Proiektu honetan, ez da lur eremu pribatuen okupaziorik aurreikusten.

## 9. LAN-PROGRAMA

Zuinkatze-akta onartuko den egunetik zenbatzen hasita, Kontratatistak astebeteko (7 egun) epea izango du lanak burutzeko behin betiko Programa aurkezteko.

Aurkeztuko den lan-programak honako datuak jasoko ditu:

Egutegi bat, lan desberdinak egiteko (prestatu beharreko lanak, ekipoak eta instalazioak prestatzeko eta horniduraren zati edo mota desberdinak gauzatzeko) aurreikusitako egunak adieraziko dituen.

Epe partzialak Administrazioak finkatuko ditu hala nahiko balu.

Kontratatistak eguneratu egin beharko du Lan-programa kontratuaren baldintzak aldatuko diren bakoitzean; horrela, Administrazioetik jasoko dituen jarraibideen arabera kontratatistak eguneratu egin beharko du Lan-programa.

Administrazioak, halaber eta beharrezkotzat joko duenean, azalpenak eskatu ahal izango ditu lanaren zati desberdinei buruz, plan zehaztuari buruz edo plano eta kalkulu osagarriak egiteari buruz; azalpen horiek lanak egin aurretik eskatu ahalko ditu onartu ahal izateko, administrazioaren onarpenik gabe ezin baitira gauzatu.

Udalak ziurtagiriak ez bideratzea erabaki dezake, harik eta kontratatistak lan-programa behar bezala aurkeztuko duen arte; kasu horretan, ziurtagiri horiek ordaintzean emandako atzerapenengatik ez da berandutze interesak jasotzeko eskubiderik sortuko.

## 10. ZUINKATZEAK

Administrazioak egingo duen zuinkatzean honakoak sartuko dira: ardatzak, lerrokatzeak, aldatsak eta beharrezko bestelako erreferentziak, planoetan ezarritakoarekin kontratatistak esleitutako lanak egin ahal ditzan.

Kontratatistak ezarritako seinaleak zaintzeko eta mantentzeko obligazioa du.

Kontratuan ezarritako epearen barruan, Udaleko zuzendari teknikoak zuinkatzea egiaztatzeari ekingo dio kontratatistaren aurrean; ondoren, bi alderdi interesdunek sinatu beharko duten akta jasoko da.

Zuinkatzea egiaztatu ondoren, udal zuzendariaren iritziz eta kontratatzailearen erreparorik gabe, lanak bideragarriak direla ondorioztatzen bada, Udalak obrak hasteko baimena emango du eta horren berri jasoko da egingo den aktan. Kontratatistak aipatu akta sinatzen duenean, jakinaren gainean geratzen dela ulertuko da eta esleitutako lanak burutzeko epea akta sinatuko den biharamunean hasiko da kontatzen.

Osterantzean, Obra zuzendariak proiektatutako obrak osorik edo partzialki aldatu beharra dagoela ulertzen badu edo kontratatistak erreparorak jartzen baditu, horren berri jasoko da aktan eta obren



**LEGAZPIKO  
UDALA**

hasiera, osorik edo partzialki, eten egingo da Obra zuzendariak dagokion erabakia hartuko duen arte. Erabaki hori hartuko den arte eta kontratistaren erreparoa oinarri gabeak izango direnean izan ezik, obrak aldi baterako etenda geratuko dira akta sinatuko den hurrengo egunetik aurrera.

Obrak ez hasteko arrazoiak gainditu ondoren obren hasiera onartzea erabakiko da; horretarako, obrak hasiko direla behar bezala jakinaraziko zaio kontratistari eta jakinarazpena jasoko den biharamunetik hasiko da obrak burutzeko epea kontatzen. Administrazioak egindako xehetasun-zuinkatzeak edo osotasunaren zuinkatze osagarriak kontratistak burutuko ditu obraren zati desberdinak egiteko beharrezkoak direnean; obraren dagokion zatia hasi baino lehen Obra zuzendariaren idatzizko adostasuna lortu beharko da eta onarpen hori gabe kontratista izango da sor daitezkeen akatsen arduradun bakarra eta bere gain hartu beharko ditu akats horiek zuzentzeko egin beharreko lanak.

Kontratistak Administrazioak egindako zuinkatze orokorreko erreferentzietan akats edo gabeziaren bat antzematen badu, horren berri eman behar dio Obra zuzendariari, akats edo gabezia horiek akta egin aurretiko egiaztapenean antzeman ez badira ere. Horrelakoetan, kontratistak Akta osagarria jasotzea exijitu ahal izango du eta bertan jasoko dira antzemandako desberdintasunak eta horiek erremediatzeko modua.

## **11. OBRAKO BISITAK**

Udalak izendatutako gerentziari beharrezkoa iruditzen zaion guztietan egingo dira obrako bisitak, eta gutxienez astean behin. Bisita horietara derrigorrez joango dira Obrako burua eta Udalak izendatutako gerentziako kideren bat.

## **12. PROIEKTUA BURUTZEKO BEHARREZKO DIREN BAIMENAK**

Enpresa esleipendunak beharrezko kudeaketak egingo ditu, lana burutzeko beharrezko diren baimenak lortzeko, bai enpresa hornitzaileen aurrean bai Administrazio eskudunen aurrean, nahiz eta eskaera formalak Udalak bete.

## **13. OBRAKO MATERIAL ETA UNITATEEN PROBAK ETA AZTERKETAK EGITEA**

Materialek baldintza teknikoaren plegutan ezarritakoa beteko dute.

Kasu bakoitzean obrako material eta unitateen bidezko probak eta azterketak egitea agindu dezake Udalak eta hori egiteak sortuko dituen gastuak kontratistaren kontura joango dira, gehienez obraren burutzapen materialaren aurrekontuaren 100eko 2ari dagokion zenbatekoraino; zenbaketa horretan ez dira ondoren zehaztutako gastuak sartuko:

- Edozein motatako materiala onartzeko aurretiazko proba guztien gastuak.
- Harrobiak eta maileguak finkatzeari dagozkion proba guztien gastuak.
- Agiri honetan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten emaitzak jasoko dituzten proben gastuak.

Kontratistak laborategiei emango dizkie, eta haiekin adostutakoaren arabera, probak egiteko nahiko material.





**LEGAZPIKO  
UDALA**

Udalak berak finka ditzake probak eta azterketak egiteko laginen eta probeten kopurua, forma eta dimentsioak eta izan behar dituzten ezaugarriak horrelakorik modu orokorrean ezarrita ez dagoenean eta baldintza tekniko zehatzen agirian datu horiek jasotzen ez direnean.

#### **14. OBRAKO ITXITURAK, SEINALEAK ETA ERROTULUAK**

Babes-hesi bat jarri beharko da. Hori dela eta, krokis bat aurkeztuko da, eta bertan marraztuko da okupatuko den zoru publikoaren eremua. Udal Zerbitzu Teknikoek oniritzia eman beharko diete hesiaren kokapenari, dimentsioari eta ezaugarriari, bai eta oinezkoentzako pasabideak bideratu eta desbideratzeko irtenbideei ere. Obragatik jarritako behin-behineko babes eta seinale elementuak bat etorriko dira, irisgarritasun baldintzei buruz, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak II. eranskineko 4.3 artikuluan xedatutakoarekin. Dena den, oinezkoentzako behin-behineko pasabideek gutxienez oztoporik gabeko 1,50 m-ko zabalera izango dute. Espaloiaaren zabalera estuagoa bada, pasabideak ere neurri hori bera izango du.

Esleipenduna behartuta dago ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa segurtasun nahikoarekin mantentzera. Hori lortzeko arauzko hainbat neurri hartuko ditu. Oinezkoen, auto-gidarien eta obrako langileen segurtasuna une oro bermatuko da, seinale bertikal eta/edo horizontalekin, informazioko karteekin eta errotulu adierazleekin. Galtzada eta espaloiak ere garbi egon daitezen zainduko da bide segurtasuneko arrazoiengatik.

Jarriko diren trafiko seinaleak arauzkoak izango dira, eta horien kokapena bat etorriko da bai hiri ezaugarriekin, bai obrako eremuak eragindako bide zatiarekiko duen kokapenarekin.

**Euskaraz eta gaztelaniaz** idatziko da obrako segurtasun neurriak adierazi eta ezartzeko kontratistak jarri beharreko seinaleen testua.

Obrari buruzko informazioa azaltzen duen errotulua eskatu dezake Udalak herritarrek informazioa izan dezaten. Errotulu horrek obraren xedea, sustatzailea, aurrekontua, proiektuaren egileak, enpresa eraikitzailearen izena, etab jasoko ditu. Bertan obra diruz laguntzen duten erakundearen izena ere azaldu beharko da.

**Kontratistak bere kontura jarri behar ditu kontratu honen helburu diren obrak adierazteko seinaleak eta errotuluak. Eginbehar hori indarrean dagoen legeriaren, Erakunde eskudunek esaten dutenaren eta Obra Zuzendaritzaren jarraibideen arabera egingo du.**

#### **15. INGURUAREN ARGIZTAPENA OBRAK DIRAUEK BITARTEAN**

Obrak dirauen bitartean udal farolak erretiratu edo argirik gabe utzi beharko balira, esleipenduna arduratuko da argiztapena bermatzeko beharrezko baliabideak jartzeaz. Instalazioa, indarrean dauden behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan eta Energia-eraginkortasunerako Erregelamenduan jasotakoaren arabera egingo da. Horretarako, altuera desberdineko zutoinak, luminariak eta lanparak,... jarriko dira egungo herri-argiteriaren sarera lotuta. Lan horretan udal langileen jarraibideak beteko dira eta obra bukatu ondoren argia deskonektatu eta jarritako elementuak kenduko dira. Kale argiteriako argindarraren kontsumoaren kostua Udalak bere gain



**LEGAZPIKO  
UDALA**

hartuko du.

## **16. ZERBITZUAREN MANTENTZE-LANA, TRAFIKOA ETA PASABIDEAK**

Obrak burutzean zerbitzuren batean, ibai, bide edo oinezkoen edo ibilgailuen pasabideren batean eragina izanez gero, kontratatzaileak egin beharrekoa zerbitzua edo trafikoa geldiarazi gabe egin beharko du, hori horrela izan dadin egin beharreko lanak eginez.

Horretarako bestelako jarduerak egin behar izanez gero, hala nola, behin-behineko desbideratzeak, nonbaitera iristeko arrapalak, behin-behineko azpiegiturak,... horiek egitea eta erabiliko diren epean horiek behar bezala zaintzea kontratistaren kontura joango da eta kontzeptu horiengatik ez zaio ordainduko, obraren prezioan sartuta daudelako.

Oinezkoen pasabideetan edo trafikoa igarotzen den bide-tarteetan aurretiazko jarduerak egin behar badira (larginak edo horrelakoak), deformaziorik gabeko elementu egokiekin estaliko dira eta behar bezala seinaleztatuko dira.

Ekitaldiak daudenean edo egun berezietan, Udalak garbitasuna eta segurtasuna areagotzea eska dezake.

## **17. HONDAKINAK KUDEATZEA ETA MATERIALA BILTZEA**

Kontratistak plan bat aurkeztu beharko dio jabetzari eta, bertan, obran sortuko diren eraikuntza- eta eraipen-hondakinen inguruko bere obligazioak nola beteko dituen adieraziko du. Plan hori obrako kontratu agirietan sartuko da, udal teknikariek ontzat eman eta jabetzak onartu ondoren.

Hondakinen eta materialen pilaketa Udalak adierazitako lekuetan egingo da. Ostiralero, festa bezperetan edo Udalak espresuki hala eskatutakoan, hondakinen pilaketa eremua garbi utzi beharko da.

## **18. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK**

Obrak gauzatzeko beharrezkoak diren hartuneak (argindar, telefono eta abarren hornidura) –baita obra-etxolakoak– enpresa esleipendunaren kontura egingo dira, bai hartune horiek lortzeko egin beharreko kudeaketak bai horien kontsumoak. Gainera Gipuzkoako Urak-i aurkeztu beharko zaizkio ur- eta saneamendu-hornidurako hartuneen derrigorrezko eskaerak.

Baldin eta obren ondorioz azpiegitura sareak, kutxetak, kutxeten estalkiak, estolda-zuloak, hiri-altzariak, argiak, lorategiak, zoladurak, edo urbanizazioko beste osagai batzuk berriz jarri edo aldatu behar badira, horiek obran jarri aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoen adostasuna lortu beharko da.

Beste alde batetik, obra-amaierako dokumentazio hau aurkeztu beharko dio kontratistak Udalari:

– Xehetasun-planoak (“ .dwg ” formatuan ere bai).



**LEGAZPIKO  
UDALA**

- Benetan egindako obraren amaierako planoak (".dwg" formatuan ere bai).
- Memoriak, kalkulu-oinarriak eta kalkuluak, zehaztapen teknikoak, azken neurketen egoera eta benetan egindakoaren aurrekontua.
- Egindako proben emaitzak, indarrean dagoen Proiektu-protokoloarekin edota Erregelamenduarekin bat etorritik egindakoak.
- Erabilitako materialen zerrenda eta katalogoak.
- Hornitzaileen zerrenda eta telefonoak.

Aurreko dokumentazioaren lehen kopia bat, onartu gabekoa, Udalari emango zaio.

Udalak dokumentazio hori onartu ondoren, agiri guztien 2 kopia entregatuko dira, behar bezala koadernatuta, bai eta dokumentazio hori guztia formatu digitalean jasoko duen CD bat ere.

#### Hizkuntza baldintzak

1.- Enpresa esleipendunak administrazio kontratatzailean aplikatzen diren hizkuntz arauen arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan.

2.- Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Horrela egin ezin denean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz, betiere administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.

3.- Administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da, oro har, kontratuaren ondorioz sortzen diren harremanetan:

a) Ahozko harremana euskaraz izango da. Kontratutako enpresan euskara maila egokia duen pertsonarik ez badago, enpresak bitarteko egokiak edo hizkuntza gaitasun nahikoa duten pertsonak jarri beharko ditu administrazioarekin harremanak euskaraz izateko.

b) Idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi behar dira; bi alderdiek euskaraz izatea aukeratzen badute, euskaraz izango dira.

#### **19. PLANOAK**

Jarraian atxikita daude

#### **20. IRUDIAK**

Jarraian atxikita daude

Legazpin, 2016eko urrian




**LEGAZPIKO  
UDALA**

## 20. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA





**LEGAZPIKO  
UDALA**





**LEGAZPIKO  
UDALA**

